

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1998ko urriaren 11



Estornes Lasatarrei omenaldia

■ Bernardo Estornes Lasak bere bizitza luze eta oparoaren gora-beherak jasotzen dituen liburua aurkeztuko du Donostian hila honen bukaeran, *Bernardo Estornes Lasa. Memorias. Recuerdos y andanzas de casi un siglo*, alegia. Ekitaldi berean, gainera, Izaba jaioterriko Udalaren omenaldia jasoko du, baita

Mariano eta Jose analen izenean ere. On Bernardo pozik dago, behin eta berriz azpimarratu duenez, «izabar osoa» baita bera, nahiz eta aspaldi bertatik aldegin. 89 urte baditu ere, lanean jarraitzen du Bernardo Estornesek, berak sortu Añamendi argitaletxearen buru. ■

Metropoli forala

FELIPE RIUS



Duela zenbait hilabete, zine areto berriak zabaldu behar zituztela-eta, kalitatezko zinearen aldeko apostua egin behar zutela zioten metropoli foral honetako egunkari eta Irrati guztietan arduradunek, badakizue, «gutxiengo zabal» bati gustatzen zaizkion filmeak ekarri behar zituzten eta gainera kasu askotan jatorrizko bertsiok izango zirela azpimarratzen zuten. Denok pozik hasieran, baina piskanaka-piskanaka konturatu ginen ondoko hiritara joaten segitu beharko genukeela *Underground* bezalako filmeak ikusi ahal izateko, gure kartelarak ez baitzuen gauza handirik eskaintzen. Jakina, esaten genion geure buruari, negozio bat jartzen duenak dirua egiteko eskubide osoa dauka, eta seguru Nerudaren postariari etekin handiagoak ateratzen dizkiotela Kusturicaren pelikula barrokoai edo Angelopoulouren lirismoari baino. Hiri honetako kronista batek aspaldian zioen bezala, inoiz ez diegu nahikoa esker

gure kudeatzale kulturalen turismoaren alde egindako lana, haien esker ezagutzen ari baikara beste toki batzuetako aretoak, antzokiak eta kiroldegiak.

Etsita nengoen, bada, baina ez nuen espero areto horietan Ken Loach zinegilearen lan baten hilketa ikustea. *Carla's song* hil egin dute, erabil, asesinatu, eta horretarako erabil duteen bidea bikoizketa izan da. Zuzendariari irakurria genion ingelesez apenas ez zekien neska rikafaguar bat bilatu zuela erreallismo handiagoa lortzearen, baina lruñean Loach-en nahiak ez du deustarako balio izan. Hasi bezala pronto filma absurdoan erortzen da, patetismoan. Emakumeak ollgofenikoa bailltzan hitz egiten du Glasgoweren, gaztelaraz, jakina, eta eskoziarrak, gaztelara garbian mintzatu arren, ez dio ulertzen. Antzeko zerbait gertatzen da Nikaguan daudenean, eskoziarrak espainieraz adierazten dio zerbait nekazari bati eta neskak dena erreplikatzan du

(itzulpena egiten ari dela sinetsi behar dugu). Zinera sartzean jatorrizko bertsiok ez ote zegoen galdetu genuen, eta ateratzean amorrut pentsatu genuen seiehun pezeta galdu genituela miresten dugun zuzendari baten lana nola hil duten ikusteko. Zer esango zukeen Ken Loach-ek bere filma metropoli foralean ikusiko balu? Non dago kalitatezko zinea zaintzeko borondatea? Gauza bera egingo al dute John Sayles-en *Lone star* filmearen hizkuntza eta kultura nahasketa lilluragarria sos gehiago irabaziko dutelakoan bikoizketaren bidez ezabatuz? Nahit duten diru guztia egin dezatela, baina ez diezagutela adarrik jo.

Hainbeste kostatzen zale Ken Loach-en pelikularen izpiritua gordezten duen kopia bat ekartzea? Negozioa ongi doakie eta azken finean gu lau katu berezi eta arraro besterik ez gara, baina Loach-ek ez du egin diotena merezi. Ezta ikusleok ere. X

Carlaren abestia hil dute

* GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Gares: Medina Azahara taldeak kontzertua eskainiko du gaur, gaueko hamaiketan, Funda Mental aretoan. Sarrerak 1.500 pezeta izanen dira salgai (60 libera).

Aitzoain: Albatros eta Greenhouse Effect taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, gaueko hamaika eta erdietan, Artsaia Music Cluben. Sarrerak 1.000 pezeta (40 libera) eskuratu ahal izanen dira.

Tafalla: Pablo Sarasate orkestrak eta Iruñeko Orfeoak kontzertua eskainiko dute hilaren 16an, arratsaldeko zortzi eta erdietan, Santa Maria elizan.

ERAKUSKETAK

Burlata: Cristina Alonsoren margolanak ikusgai izanen dira herriko kultur etxean, urriaren 20ra arte. Aretoa egunero arratsaldeko zazpiketarik gaueko berderatzak arte izaten da zabalik.

Iruñea: 70eko hamarkadan Madrilen figurazioa landu zuten zortzi artistaren lanak ikusgai izanen dira Nafarroako Museoa urriaren 27ra arte. Museoa astelehenean itxita egoten da, asteartetik larunbatera 10.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 19.00etara zabalik, eta Igande eta jai egunetan 11.00etatik 14.00etara.

Iruñea: Alicia Otaegiren *Artefacto* izeneko instalakuntza hilaren 27ra arte ikusgai izanen da Gotorlekuan.

LEHIAKETAK

Iruñea: Narrazio erotiko laburren lehiaketa antolatu du Sex Haizegoa dendak. Lanek gutxienez 20 folio eta gehienez 50 eduki beharko dituzte, eta urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Sex Haizegoan bertan (Barañain etorbidea, 29). Idazlanak euskaraz zein gaztelaniaz aurkez daitezke. Irabazleek (euskaraz zein erdaraz) 75.000 pezeta (3.000 libera) patrikaratuko dituzte.

Barañain: VIII. Argazki Lehiaketa antolatu du Udaleko Kultur Sailak. Abenduaren 9a baino lehenago bidali behar dira lanak parte hartu ahal izateko. Gaia librea da, eta sari banaketa abenduaren 26an izanen da.

IKASTAROAK

Iruñea: Aisia begiraleentzako ikastaroa antolatu du Urtxintxa aisia eskolak, Nafarroako Kirol eta Gaztedi Institutuaren laguntzaz. Ikastaroa azaroaren 9an hasi eta apirilaren 26an amaituko da. Informazio gehiago jasotzeko dei 21 14 78 telefonora.

Zizur Nagusi: Gazteentzako herri dantza ikastaroa izanen da herriko kultur etxean. Goizek edota arratsaldean aritzeko aukera izanen da. Hilabete bakoitzeko 1.000 pezeta (40 libera) ordaindu beharko da.

nafarkronika

Fermin Erbiti

Kontuetan adituak

Frantziar minbiziaren aurkako elkarte bat sortu zen orain dela urte batzuk. Gaixotasunaren aurka eta gaixoen alde lan egitea zuen helburu, helburu txalogarria dudarik gabe. Irabazasmorik gabeko berte erakundeek bezalaxe, hark ere dirulaguntzak jaso zituen Frantziako Administrazioetik.

Gauza jakina da Administrazioak zailtasun handiak jartzen dizkiela batzuei dirulaguntzak jasotzeko. Berte batzuek, ordea, oso erraz lorzen dituzte agintarien lagunak direlako edo Administrazioaren zirikitueta ibiltzen ikasi dutelako. Horixe gertatu omen zitzaion aipatu elkarteari. Kontua da urtetik urtera hazten joan zen elkarte hark gero eta dirulaguntza handiagoa jasotzen zuela, eta egun batean norbaitek elkarte hura fiskalizatzea erabaki zuen. Kontuen Epaitegiak jakinarazitako emaitza harrizkoa izan zen: elkarte hark ez zuen deus gastatu hasierako helburuetan, jasotzen zuen dirulaguntza osoa elkartea bera eta bere kontura bizi zirenak mantentzeko behar baitzuen.

Frantziako elkarte hari gertaturikoa zenbait alderdi eta sindikaturik gertatu zaiela iruditzen zait. Nor bere eragina eta indarraren arabera hazi beharrean, handitzea zuten xede bakarra eta laguntza ofizialak nahi zuten egiturari eusteko exkaxak zirela konturatzean mota askotako negozioetan sartu dira.

Alderdi eta sindikatuak legezko negozioetan sartzen direnean, kontuz ibili! Helburua negozio ona egitea izanagatik, horretan esperientziarik gabekoa jarriko dute gidari. Kooperatiban etxegintzan aritu ez dena, egunkarian prentsari buruz deus ez dakiena. Hobe etxekoa, nahiz eta esperientziarik gabekoa izan, kanpoko profesionala baino. Jokabide horren porrotak aski eza-gunak dira han eta hemen.

Legezko negozioetan etorkizun beltz xamarra zutela ikustean, batzuk bertzelako negoziotan sartu dira urtetik urtera hazten joan diren egiturak eskatzen zuen adina lortu eta, bide batez, etekin pertsonalak ere eskuratzeko. Bada, esate baterako, herri lanetan espezializatu dena eta arlo horretan Nafarroak baditu maixu on batzuk. Berte batzuk dirulaguntzak hartuta, mi-siolarien moduan, Hego Ameriketara joan omen dira bertakoei kooperatibak sortzen irakasteko, edo ikastaro fantasmak antolatzeari ekin diote.

Expansión egunkariak aste honetan argitaratutako albistearen arabera, Espainiako Estatuko bigarren sindikatuak 2.200 langile ditu baina, hala ere, inor ez da gauza izan bertako kontu nahasiak argitzeko. Hor dago kokka! Ba al da hemen alderdi eta sindikatuen kontuak koadratzeko gauza den ekonomialaririk? Ez, harrigarria izanagatik, horretan jakintsuagoak dira herri lanetan espezializatutakoak eta mi-siolari batzuk.



asteko pertsonaiak



Julian Retegi
Pilotaria

■ Eratsungo jakitunak 42 urte bete zituen atzo. 1974ko uztailaren 14ean profesionaletan estreinakoz jokatu zuenetik, esku pilotan lor daitekeen gehiena lortu du: hamaika txapel manomanistan, hiru bigarren postu txapelketa berean, lau txapel eskuz binaka... Halere, oraindik ez du erabat ase bere garaipen gosea, eta, 42 urte dituela, ez du gertu ikusten pilotari azken agurra esateko unea. Norgehiagoka luzeen ondotik sasoi berreskuratzea lehen baino gehiago kostatzen zaiola aitortzen du, baina, halaber, hortxe segitzeko asmoa duela dio. Kontent izan daitezke, beraz, pilotazaleak. Eratsungoa egun lau eta erdiko txapelketa prestatzen ari da. Urriaren 27an izanen du lehendabiziko neurketa txapelketa horretan.



Ismael Urzaiz
Futbolaria

■ Tuterarrak 25 urte egitearekin batera bete du futbolari baten amets nagusietako bat: selekzio batean jokatzeko. Asteazkenean izan zen, Txekiaren aurka Espainiako selekzioak jokatu zuen partiduan, eta azken minutuetan atera bazen ere bere lana bete zuen Urzaizek. Real Madridero beha taldeetan hezia, hainbat taldeetan aritu da zenbait urtez aurrelaria: bigarren mailan hasieran, Rayo Vallecanon gero, Bartzelonako Espanyolera iritsi zen arte. Han izugarrizko denboraldia egin zuen iaz, eta aurrean Athleticek fitxatu du. Jokalari indartsua, teknika ere baliatzen du aurrean jokaldia egiteko, eta buruz primeran aritzen da. Urzaizek, horrela, txanda hartu die aurretik selekzioan aritu ziren Goikoetxea, Bakero edo Martin nafarret. Txekiaren aurka beste euskal jokalaririk batzuekin aritu zen Urzaiz: Zubizarreta, Alkorta, Guerrero eta Roberto Rios, Clemente hautatzaileak gain.

ahaztu gabe!



FOLK MUSIKA

Barañain-Burlata: Barañain eta Burlatako udalek *Naturalki* izeneko folk musika zikloa antolatu dute elkarlanean. Horren barruan, Txanbela, Ezpelur Folk eta La Orquesta Del Fabirol taldeen musika gozatu ahal izanen da. Txanbela taldea ariko da heldu den astelehenean Burlatan, eta asteartean Barañainen. Ezpelur Folkek kontzertua eskainiko du Burlatan asteazkenean, eta Barañainen asteazkenean. La Orquesta Del Fabirol taldearen musika, azkenik, entzungai izanen da Burlatan ostiralean, eta Barañainen larunbatean. Kontzertu guztiak ilunabarreko zortziretan hasiko dira. Burlatakoak Hilarion Eslava Musika Eskolan egingen dituzte, eta Barañaingoak Udaletxean. Musika zikloaz landa, bi udal-txek Ubra artista talde iruindarraren erakusketa antolatu dute. Erakusketa urriko bigarren hamabostaldian bi herriotako Kultur Etxeetan izanen da ikusgai.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenean ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaine* tik, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Zizur Nagusia

Rakotoren emanaldia gaur

Madagaskarko kantariak Chris Birkettekin batera joko du gaur Kultur Etxean

Madagaskarko Yves Rakotomalada 'Rakoto'-k kontzertua eskainiko du gaur Zizur Nagusiko Kultur Etxeko anfiteatroan. Nafarroan ematen duen lehen kontzertua izanen da gaurkoa, eta gaueko hamarretan hasiko da. Rakotok bost disko grabatu ditu orain artean. Azkenekoa, hain zuzen, gaur Zizurren ondoan izanen duen Chirs Birkettekin batera grabatu du Rakotok. 'Iray' izeneko diskoa da elkarlan horren emaitza.

Erredakzioa / Iruñea

RAKOTO eta Chris Birkett kantariak kontzertua eskainiko dute gaur Zizur Nagusiko Kultur Etxeko anfiteatroan. Emanaldia gaueko hamarretan hasiko da. Sarrerak salgai izanen dira Kultur Etxean bertan, 500 pezetan (Gazte Txartela duenarentzat 250). Gaueko bederatzia eta erdiak arte eskuratu ahal izanen dira.

Rakoto kantari madagaskartarrak Nafarroan ematen duen lehen kontzertua izanen da gaurkoa, ez ordea Euskal Herrian, joan den urtean izan baitzen jada gure artean. Gure herrialdean, beraz, aurkezpen kontzertua izanen da gaur gauekoa. Rakoto, baina, ez da bakarik agertuko jendaurrean. Chris Birkett abeslari britainiarra izanen baita berarekin, azken urteetan berarekin lan egin duten musikarietako bat.

Rakotoren musika sailkatzea ez da erraza baina adituek World



Rakoto kantari afrikarra Zizur Nagusian ariko da gaur, Chris Birkettekin batera.

Musikaz gainera bataiatu dute, munduko musika. 1951. urtean Madagaskarko Antananarivo herrian jato zen Yves Rakotomalala. Rakoto izena aukeratu du, batna, lanerako. Berarekin batera, hainbat musikari europarrek egiten dute lan. Orain artean bost disko ditu atzean, mundu osoan zabaldu direnak. Espainian, *Iray* izeneko minikonpaktua aurkeztu zuen iaz, Chris Birkettek ekoiztua. Chris Birkettek, besteak beste, Sting, Sinnead O'Connor eta The Pogues ezagunekin egin du lan.

Iray lan honetan, lau abesti bildu zituen Rakotok: *Volana*, *Ankizi taloha*, *Namanay* eta *Volana unplugged*. Chris Birkett ez gain, Rivo Razafindramanitra eta Mark Sullivan musikariak hartu zuten parte Madagaskarko kantariarekin disko hau sortu ahal izateko.

Chris Birkett ez da Rakotok izan duen kolaboratzaile bakarra. Iazko urteko erdialdean, hain zuzen, Via Libre izeneko taldea sortu zuen Espainia eta Frantziako musikari batzuekin. Talde honekin bira egin zuen

joan den urteko azaroan Rakotok, Madagaskarren zehar. Zuzen-zuzeneko diska grabatu zuten orduan, Rakotoren bosgarrena eta *Live un Antsamanitra* izeneko. Madagaskarren ezezik, eman dituen kontzertu guztietan jo du Madagaskarreko musikariak Via Libre taldearekin, berau sortu zuenetik. Kritikarien erranetan, soinu europarraren eta *malgash*-aren arteko nahasketa da Rakotoren musika, Europa, Afrika, India eta Ekialdeko herrietako hotsek eragindako musika estilo propioa, alegia. X

Igantzi

Mankomunitateak euskara bultzatuko du dendetan

Bere presentzia handitu eta maila hobetzeko

Erredakzioa / Iruñea

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAK Bortzirietako dendetan euskararen presentzia bultzatzeko egitasmoa jarri du abian. Egitasmo honetan, Mankomunitateko udalerriek hartuko dute parte, eta bakoitzean, denda guztiak bisitatu dituzte, hau da, janaridendak eta ostatuak, jantzi eta zapadendak, orotariko dendak, zerbitzu eta finantza erakundeak eta akademiak.

Proiektu berri honen helburuak hiru dira nagusi: dendetan euskararen presentzia handitzea, ahoz nahiz idatziz, enple-

gatu euskara maila hobetzea eta barne nahiz kanpoko harremanak euskaraz egiten dituen dendetan sarea sortzea. Bide batez, informazioa jaso nahi dute egitasmo honen bidez Mankomunitateko kideek: denda bakoitzeko euskararen egoerari buruz, eta hizkuntza normalizazioaren inguruko behar eta aukerei buruz.

Euskara dendetan bultzatzeko asmoz, Bortzirietako guztiak bisitatu dituzte proiektu honen arduradunak. Ondoren, bildutako informazioaren arabera, denda bakoitzarentzat proposamen zehatzak aurkeztuko dituzte, hizkuntzaren ezagupena eta erabilera hobetzeko asmoz. X

Tafalla

Musika izanen da nagusi kultur programazioan

Jose Luis Etchechipiak bihar hartuko du parte

Erredakzioa / Iruñea

TAFALLAKO Kultur Patronatuak prestatu duen kultur egitarauaren protagonista izanen da musika datozen egunetan. Lehenengo kontzertua bihar bertan izanen da, arratsaldeko zortzietan, Santa Maria elizan, Jose Luis Etchechipia organo joleak eskainiko du. Musikari honek, hain zuzen, Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan hasi zuten bere musika ikasketak. Ondoren, Donostian jarraitu zituen bere ikasketak, Gipuzkoako hiriburuko Kontserbatorio Nagusian.

1990. urtean Espainiako Mu-

sika Gazteen lehiaketan saria jaso zuen eta hainbat musika zirkulatu hartu du parte. Gaur egun, Iruñeko Sine Nominé Musika Tailerreko partaide da. Tafallako Santa Maria elizan eskainiko duen kontzertuan, Juan Sebastian Bachen obrak joko ditu Etchechipiak.

Tafallako bigarren kontzertua Pablo Sarasate Orkestrak eta Iruñeko Abesbatzak eskainiko dute, hurrengo hilaren 16an, arratsaldeko zortzi eta erdietatik aurrera, Santa Maria elizan bertan. Mozart, Prokofiev eta Haendel maisuen obrak eskainiko dituzte, Luis Agirreren zuzendaritzapean. X

Amikuze

Hilarekin batera amaituko da Amikuzeko jai denboraldia

Arruten jaialdia izanen da asteburu honetan

Julen Arriola / Donapaleu

EUSKAL HERRIKO jai zirkuitutik at badira ere, Amikuzeko Oztibarre herrietako jaiak, Nafarroa Behereko kantoiak, ez dira atzean gelditzen. Azken urteetan, hain zuzen, herri ezberdinetako jai batzordeak elkarrekin aritu dira lanean, kontzertu egitarau ahalik eta beteena aurkeztu nahian. Aurtengo denboraldia, hain zuzen, urriaren amaierarekin bukatuko da Amikuzen. Isturitzen, hala ere, azaroaren 4tik 6ra bitartean ospatuko dituzte herriko bestak. Gazteek egun horietarako antolatu duten egitarauaren barruan, esate baterako, Niko Etxart abeslari zuberotarrak kantaldia eskainiko du, beste hainbat ekitaldiren artean.

Asteburu honi dagokionez, AEK-k antolatu kontzertua izanen da Arrutan. Kapten Egurrak, Pi L. T. eta Su Ta Gar taldeek hartuko dute parte. Besta egunekin jarraituz, hilaren 26, 27 eta 28an Alzumartako jaiak ospatuko dituzte, egitarau luze eta bete batekin.

Nafarroa Behereko jai denboraldia indartsu hasi zen joan den maiatzaren 4an, Larribarreko jaiekin batera. Orduz geroztik, asteburuoro ospatu dituzte bestak kantoiko herri txikienetan ere. Prestatutako egitaraua ez da makala izan. Arhantsusik Jean Mixel Bedaxagarren kantaldiaren aldeko apustua egin zuen abuztuari; Donapaleuko Garris auzoak, berriz, Jojo ta Ramuntxo eta Txakun taldea aukeratu zituzten hil berean. Tapia eta Leturia Band taldekoek, berriz, Mehaine eta Larzabaleko jaietan hartu dute parte.

Donapaleuko jaiak heavy musika aukeratu zuten uztaillerako, Su Ta Gar eta Skunk taldeen eskutik. Izura eta Pagolako gazteen ere izan zituzten euren kontzertuak. Izuran, Etsaiak, Zpeiz eta Urdeak taldeak izan ziren, eta Pagolan berriz, Bost Gehio eta Laminak, irailko besten egitarauaren barruan. Herri hauetako guztietako ekitaldietan gazteek erruz hartu dute parte, jende andana erakartzen baitu urtero Amikuzeko jai denboraldi luze ospetsu honek.

Aipatzekoa da kontzertu gehienak dohainik izan direla, herrietako gazteek osatu jai batzordeei esker. Izan ere, herri bakoitzeko udaletxeak aurrekontuaren zatitza besterik ez du betetzen. Gai nontzekoa, gazteek lortutakoaren eta auzokideek emandakoaren bidez betetzen dute. X

Estornes Lasa anaien
ekarpenari omenaldia

Hiru izabarren ekarpen joria

Bernardo Estornesek, bere anaia Mariano eta Joseren izenean, omenaldia jasoko du Donostian

Bernardo Estornes Lasa izabarrak bere herriko Udalaren omenaldi beroa jasoko du hil honen 29an, Donostiako Koldo Mitxelena. Ekitaldi horretan, bere memoriak jasotzen dituen liburua aurkeztuko du: **Bernardo Estornes Lasa. Memorias. Recuerdos y andanzas de casi un siglo. Izabak Estornes anaiek kulturaren alde egindako lan zabala eskertu nahi dute.**

Eduñe Elizondo / Iruñea

IZABAKO UDALAK omenaldia eskainiko die hilaren 29an herriko Estornes Lasa anaiei, kulturaren alorrean egin duten lan itzel eta zabala eskertzeko asmoz. Bernardo Estornesek jasoko du bere jaioterriko ordezkarien esker ona, bere anaia Mariano eta Joseren izenean. Jose Estornes 1987. urtean zendu zen, eta Mariano Estornesek, bere osasuna dela eta, ezin izanen du Koldo Mitxelena eginen den ekitaldian parte hartu.

Urriaren 29an, jendaurrean aurkeztuko ditu Mariano Estornes Lasak bere memoriak, **Bernardo Estornes Lasa. Memorias. Recuerdos y andanzas de casi un siglo** izeneko liburua, alegia, Donostiako Koldo Mitxelena. Ekitaldi berean eskainiko dio Izabako Udalak omenaldia. Bernardo Estornes, ordea, ez da bakarrik izanen, ondoan izanen baitu familia. Tartean, Idoia Estornes bere alaba, aitak jasoko duen omenaldiaren prestaketan zuzenean parte hartu duena. Izabako Udaletik Donostiara hurbilduko den ordezkari buru, berriz, Angel Luis de Miguel alkatea izanen da. Gainera, Eusko ikaskuntzako buru Gregorio Monreal eta Pedro Miguel Etxenike izabarren arteko zaharrenarekin, beste hainbat artean.

Bernardo Estornes Lasak ezagunak ditu omenaldiak, askotxo jaso baititu, batez ere Estornesek hain begiko duen Eusko Ikaskuntzako Manuel Lekuona saria eman zionetik, 1992. urtean. Hurrengo urtean, adibidez, ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak. Izabako Udalak -Izabako herriak, finean- hil honen bukaeran eskainiko dio, ordea, berezia da guztien artean, aitortu digunez. Pozik da.

Eta Izabako Herriko Etxekoan asmoa hori zen, ez besterik: «Es-



1938. urtea Lillen. Ezkerretik hasita, Mariano Estornes, Jose Zubizarreta, Iñaki Azpiazu, Alfonso Estornes eta Bernardo Estornes.

AUÑAMENDI ARTXIBOA



1928. urtea. Estornes Lasa familia. Ezkerretik hasita hirugarrena da Bernardo Estornes.

AUÑAMENDI ARTXIBOA

tornestarrak poztu eta Erronkariko historia, hizkuntza eta, oro har, kulturaren baitan egin duten urte eta urteetako lana eskertu». Angel Luis de Miguel Izabako alkatearen hitzak dira hauek. Estornes Lasatarrek herriaren historia eta kultura ezagutu eta berreskuratzeko egin duten lanaren garrantzia ez du zalantzan jartzen: «Kate maila hautsita zegoen, eta eurek,

neurri batean, berriro elkartu dute».

Beñat Idaztiak eta Auñamendi argitaletxeak • Izabako Estornes Lasa anaiek egin duten lana nekez laburbil daiteke bi orritan, bizitza osoko lana baita, finean. Oraindik amaitu ez dena, gainera, Auñamendi argitaletxearen burubidean jarraitzen baitu on Bernardok oraindik ere. Bera da Estornes Lasa ezagunen artean zaharrena, 1907. urteko maiatzaren 11n Erronkariko herri eñurtsuan jaioa. 1909. urteko azaroaren 17an Mariano Estornes sortu zen, eta 1913ko apirilaren 17an, azkenik, Jose Estornes, hiruren artean txikiena.

Bernardo Estornes Anaut zuten aita; ama, berriz, Eleuteria Lasa Anaut.

Izaban eman zituen Bernardo Estornesek bizitzako lehen urteak, anai-arrebekin batera, 15 urte bete zituen arte. Zaragozara abiatu zen orduan familia. Bernardo Estornes Lasak Merkataritza Maisutza ikasi zuen bertan. Baita euskara ere, bakarrik eta bere kabuz, liburuen laguntzaz.

Zaragozan zegoela, 1927an, bere ekarpen joriaren lehen fruitua eman zuen ezagutzera, 20 urte besterik ez zituela: *Erronkarik*. Idatzi, 18 urte zituela idatzi zuen.

Zaragozatik Donostiarako bidea hartu zuen Bernardo Estornesek 1929an. Zaragozan, hain zuzen, han ziren euskaldunen artean Udako Unibertsitateko Ikasketen Buletina jasotzen zuten, eta Estornesek matrikula egitea erabaki zuen. Donostiako karririk ikusi zituen lehen unetik txundituta gelditu zen. Denbora gutxira, gainera, Eusko Ikaskuntzako liburutegiko eta bulegoko buru izendatu zuten. Donostian ere, Estornes Ikastetxea merkataritza ikasketetarako eskola sortu zuen.

Estornes Lasa anaien lanak ukitu dituen alorrean artean argitaralpena izan da funtsezkoenetakoa. Horren adierazle garbienetakoa da Auñamendi argitaletxea. Horren aurretik, 1934. urtean jada, Beñat Idaztiak izeneko argitaletxea sortu zuen, euskal kulturari buruzko Zabal-kundea Bildumari hasiera emanez.

1936. urteko gerra piztu zenean, erbestera joan behar izan zuen Bernardo Estornesek bere familiarekin batera. Parisera ailegatu zen lehendabizi, eta han Ignacia Zubizarreta Etxaberekin ezkondu zen. Frantziatik Txilera joan zen bere anaia Marianorekin. Jose, berriz, Venezuelara joan zen. Txilen zegoela, *Batasuna* euskal kultura bultzatzeko aldizkaria kaleratu zuen. 1941eko abenduan agertu zen lehen zenbakia.

Erbestetik 1958. urtean itzuli zen Bernardo Estornes Donostiara. Urte berean, Euskal Herria utzi aurretik jada buruan zuen asmoa egia bihurtu zuen Mariano anaiekin batera: Auñamendi argitaletxearen sorrera, Francoren diktaduraren garai betean. Zentsurari ihes egiten, baina, ongi ikasi zuten Estornes Lasatarrek eta euren lana aurrerateratzea lortu zuten.

Auñamendi argitaletxeak argia ikusi eta hamar urte geroago, hain zuzen, Estornes Lasatarren lorpenik garrantzitsuenetakoa ezagutu zuen: *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*. «Ja bukatua dugu. Lortu ditugun gauzen artean inportanteenetakoa da. Pentsa, 500.000 fitxako baino gehiagoko datu bankua dugu, eta kontsultarako liburutegian 12.000 liburu baino gehiago ditugu», erran digu Bernardo Estornesek.

Argitaratzaile ezetik, idazle joria ere izan da Bernardo Estornes. Hainbat aldizkaritan arti-


«Estornes Lasatarrek Erronkariko historia berreskuratzeko, eta, oro har, kulturaren alde egin duten lana eskertu nahi dugu»

Auñamendi argitaletxea 1958. urtean sortu zuten Estornes Lasatarrek Donostian, erbestetik etorri bezain pronto

Estornes Lasa anaien
ekarpenari omenaldia

◆ Bernardo Estornes Lasa ◆ Argitaratzailea

«Izabar osoa naiz»



Bernardo Estornes Lasak bere memoriak aurkeztuko ditu hilaren 29an Donostian.

JUAN CARLOS

kuluak idatzi ezezik, hamaika liburu eman ditu argitara, euskal kulturari, euskaldunen jatorriari, historiari, kantu eta olerkiei eta Erronkari eta bertako euskarari buruz. Besteak beste, *Euskal idazlasterra*, *Taquigrafia vasca*, *El Valle de Erronkari*, *Arte popular infantil*, *Historia vasca*, *Euskal-edestia* eta abar.

Mariano eta Jose Estornesen ekarpena • Bernardo Estornesek, erran bezala, Mariano anaia izan zuen ondoan abian jarri zituen egitasmo asko eta askotan. Txilen, erbestean, elkarrekin bizi izan ziren eta elkarrekin itzuli ziren Donostiara 60ko hamarkadaren atarian. Bernardok ez bezala, Filosofia eta Letrak ikasi zituen Mariano Estornesek Zaragozako Unibertsitatean. Idazlan askoren egile dugu bera ere. Guztien artean ezagunena, ordea, izabar guztiak gogoan duten *Oro del Ezka* eleberrri kostunbrista dugu. 1958. urtean argitaratu zuen. Hitzekin batera, 51 argazki plazaratu zituen Mariano Estornesek liburu honen bidez. Izan ere, Izaba hamaika eta hamaika argazki makina eta argazkilariren helburu izan bada, Estornes Lasak ateratakoak dira dauden gehienak, hasiera-hasieratik.

Oro del Ezka eleberria ezezik, beste hainbat gai jorratu ditu Mariano Estornesek bere idazkietan, bakarrik batzuetan, eta Bernardo anaiaekin bestetan. Besteak beste, Estornes Lasatarren entziklopediarentzat Amerikako euskaldunei eta geografiari buruzko artikuluak idatzi ditu, baita biografiak ere. Egun, bere osasuna makala dela eta, lan mundua bazterrean utzi du Mariano Estornesek.

Jose Estornes, hiru anaion artean gazteena, berriz, 1987. urtean zendu zen. Atzean, uzta ederra utzi zuen. Anaiek bezala, Zaragozan egin zituen Jose Estornesek ere ikasketak, Merkataritza Lanbideko Eskolan, hain zuzen. Ondoren, 1962an, Administrazioan lizentziatu zen Caracasko Unibertsitatean, eta 1969an, Donostian, Zuzenbidea ikasi zuen. Anaiek ez bezala, Venezuelan igaro zuen Jose Estornesek erbestea. Hogeita hiru urte eman zituen bertan, eta han ezkontu zen, Luz Miangolarra Gorostiazarekin.

Bere idazlanei dagokionez, aipatzekoak dira, beste askoren artean, *Cómo aprender el vasco fácilmente*, *Método elemental de vasco* eta *Erronkariko Uskara*. Bere liburuen izenburuek argitzera ematen dutenez eta Bernardo bere anak azpimarratzen duenez, irakaskuntzarako dohaina zuen. Angel Luis de Miguel Izabako alkateak ere gogoan ditu Estornestárrek euskara irakasteko Izaban jarri zuten eskola txikia. Jose Estornes zen irakasle. «Jenio bizia zuen, baina gogoz salatzen zen guri irakasten.

BERNARDO Estornes Lasarentzat egun handia izanen da urriaren 29koa. Bere memoriak jendaurrean aurkeztu ezezik, alboan izanen du Izabako herria Donostiako Koldo Mitxelena zentroan, Izabako Udalak eskerak eman nahi baitzkie Estornes Lasa anaiei. Bernardorentzat, Estornes familiak Izabari beti izan dion maitasunaren oihartzuna da jasoko duen omenaldia. Etxea du Bernardo Estornesek Izaba. Horregatik, herriari buruz galdetzen diogunean, hitz goxoak baino ez ditu aurkitzen. Orain hiru urte egon zen bertan azken aldiz, baina egunero sentitzen du barnean itzultzeko gogoia. Horretaz eta bere lan oparoaz mintzatu zaigu Estornestarren zaharrena.

■ **Izabak omenaldia eginen dizu bizitza osoan kulturaren alde egin duzun lanagatik, baita zure bitartez zure anaiei ere. Zer iruditzen zaizu?**

Oso pozik nago, izabar osoa bainaiz ni. Hori ez da sekula ahazten. Nire gurasoak bertakoak dira eta ni ere han jalo nintzen eta han hazi nintzen 15 urte bete nituen arte. Ondoren, uda asko eman ditugu han, familiaren etxean, eta azkeneko orain dela hiru urte egon nintzen.

■ **Omenaldi asko jasotako gizona zara zu. Izabako Udalak eginen dizuna, baina, berezia al da zuretzat?**

Bai horixe, gure jatorriari dio-

gun maitasunaren oihartzuna baita.

■ **Estornes Lasa anaiek egindako lana eskertu nahi du Izabako Udalak. Ez da lan makala. Atzera begiratu eta nola gogoratzen dituzu hasierako urteak?**

Donostian hasi nintzen lanean. Hiria ikusi eta txundituta gelditu nintzen, maiteminduta. Ailegatu eta hiri osoan paseo luzea eman nuen lehenik eta behin. Berehala aurkitu nituen lagunak eta zorte handia izan nuen, Eusko Ikaskuntzako Bulegoko buru izendatu baininduten. Eta hantxe egon nintzen gerra piztu zen arte.

■ **Orduetik, besteak beste, Añamendi argitaletxea eta Euskal Herriko Entziklopedia Orokor Ilustratua egin edo sortu dituzu. Zer sentitzen duzu hori guztia lortu eta gero?**

Oraindik gehiago egin nezakeela. Lan asko daukat hasita. Gerra garaian ere, hainbat gauza galdu nituen eta pena handia ematen dit horrek.

■ **Baina oraindik ere lanean jarraitzen duzu.**
Bai, bai. Hor daukat, adibidez, Gaztelera-Erronkariara hiztegia, 20.000 adiera ezberdin biltzen dituena. Principe de Viana erakundeak argitaratuko du, garrantzitsua baita niretzat Nafarroan argitaratzea.

■ **Erronkariara berreskuratzeko lan itzela egin dute Estornes Lasatarrek. Zaila izan al da?**

Oso zorte txarra izan dugu. Amaren gurasoak euskaldunak

ziren, baina gazte hil ziren eta hor eten zen katea, ez genuen ikasi. Erronkariko uskararen galerari dagokionez, ekialdetik etorri zen mendebalderantz. Erronkariko bailaran, gainera, artzainak Erribera aldera jaisten ziren eta han erderaz egiten zuten. Gero, irakasle erdaldunak etorri ziren eta

«Izabar osoa naiz nai.
Gurasoak hangoak
ditut eta ni ere han
jaioa naiz. Eta hori ez
da sekula ahazten»

Euskaldunen jatorriari
buruz idatzitako
liburuak ditut
gogokoen, zailenak
izan baitziren»

horrek ere eragin handia izan zuen.

■ **Hamabost urterekin eta zeure kabuz ikasi zenuen zuk euskara.**

Bai, baina ez dut oraindik erabat dominatu. Zaragozan ikasi nuen. Liburua hartu eta ibaitzean esertzen nintzen ikasteko. Oraindik gordeta daukat orduko liburuak.

■ **Zure seme-alabek, baina, nahiz eta Txilen jaio, badakite euskaraz eta askotan erran duzu horrek asko poztzen zaituela.**

Bai, hala da. Euskara berezia mintzatzen dute, baina. Emazteak etxean ikasi zuen euskara eta bere eta nire artean irakatsi genien seme-alabei. Donostiara guztiak euskaldun itzultzea lortu dugu eta hori oso garrantzitsua izan da niretzat.

■ **Donostiara erbestetik itzultzean, hain zuzen, gerraren ondorioak jasan behar izan zenituzten. Zaila izanen zen garai hartan lan egitea...**

Bai, oso zaila. Zentsura zegoen eta hari nola ihes egin ikasi behar izan genuen. Madrilera bidaltzen genituen lan guztiak, han lan gehiago izaten zutelako eta errazago izaten zelako ohargabeen pasatzea.

■ **Egin izan dituzun lan guztien artean zein duzu gogokoen?**

Zalantzarik gabe euskaldunen jatorriari buruz egin ditudan lau liburukiak. Oso pozik nago lan horrekin, zailena izan zelako.

■ **Zailtasunei aurre egiteko, gainera, Mariano eta Jose anaiek izan dituzu beti alboan. Zer nolako harremana zenuten zuen artean?**

Oso harreman ona. Oso ongi moldatzen ginen gure artean eta ongi egiten genuen lan elkarrekin. Gure familian beti egon gara oso elkartuak. Orain ere, seme-alabak ditut alboan nirekin lanean. *

Xanti Begiristain

Apaltasun gehiago behar da

Orain dela egun gutxi hiri batean langile profesional batzuk joan ziren establezimendu batera produktu kimiko edota pinturagai batzuekin zerbitu egitera. Bertan edo ondoan zegoen langile arrunt batek galdetu zien ea sartu behar ote zuten gauza haiek manipulatzera aurpegi-mozzorrik jantzi gabe, eta haletako langile batek honako hauxe erantzun zion gutxi gora-behera:

—Baina hiri burutik egin hago ala? Ez al hazi konturatzen gu profesionalak garela, kaka-lardo hori? —honelako modu harroarekin erantzun zion erantzun ere.

Alabaina, handik minutu batzuetara egoera ederki asko aldatu zen, izan ere, inguruan zebilen langile bakarti eta ez profesionalak

zutenean, hasieran, ez zekiten non ziren, zer gertatzen zen eta abar. Erdi groggi zirauten, nahasita eta guztiz harriturik. Sendatu zirenean ez dakit nahikoa apaltasun izanene ote zuten langile xume salbatzaileari barkamena eskatzeko eta eskerrak emateko.

Gauza bitxiak, ez da hala?

Beno, ba honek guztiak neroni pixka bat pentsarazten dit eta bururatzen zait, Hego Euskal Herriko eta Espainiako ardura handiko politikari askori ere ez ote zaien antzeko zerbitu gertatzen.

Esate baterako, ez al dabil larderia handiegiz Mayor Oreja, euskal preso politiko sakanatuez, Gasteizko Legebiltzarrari inolako jaramonik egin nahi ez diotenean?



somatu baitzuen etorri berriek ez zutela batere zaratarik egiten. Hala ba, erabaki zuen hurbiltzea eta ikusi zertan ari ote ziren profesional aditu haiek. Baina hara non topatu zituen denak lurrean erorita, konortetik gabe eta lo balleuden! Berehalaxe deitu zuten telefonoz larrialdietara eta baita etorri ere. Zorionez garaz harrapatu zituzten, eta handik gutxira guztiak hasi ziren leheneratzen eta konortea berreskuratzen. Hona hemen gertatutakoa, alegia, produktu haiek manipulatzean bota omen zuten gas oso pozointsu eta toxikoren bat. Horren ondorioz langile profesional aditu guztiak aida batean gelditu ziren K.O konortetik gabe. Beharrik beste langilea garaz konturatu zen eta berari esker sorosleek berehala erreskatatu zituzten, bestela egundoko arriskua omen zegoen bihotza (edota garuna) behin betiko geratzeko, eta orduan nekez esnatuko omen ziratekeen berriro.

Profesional sasiadituen konortea erdietsi

Edota, ez al zaitue nagusikeria iruditu Manuel Fraga Iribarnek GAL auziari buruz adierazitakoa? Niri bai behintzat.

Ildo berean ere, zer deritzozue UPN eta PP, EAE eta Nafarroaren arteko Lankidetzeta Hitzarmenaren inguruan burutzen ari diren parafernaliari?

Bai, badakit beste hamaika mila adibide ere jar litezkeela, baina gaurkoz iruditzen zait horiek aski eta nahiko adierazgarriak direla.

Badakigu gobernatzeko gaituzten agintari gehienak, bederen, harrosko samarrak direla jende arruntagoaren eskaerak eta iradokizunak gogoan hartzeko.

Ikus dezagun, ba, egunen batez eskarmen-turen bat hartzen ote duten, politikari ahal-guztidun horiek, eta orduan, harropuzkeria hori pixka bat utzita, ez ote diguten bakar-mena eskatuko.

Denborak esango du eta gu geu izanen gara lekuko. ■

Klasiko bitxi, aront klasiko

Joxemiel Bidador

Emaztekien segida XIV: Euzkerea aldizkariaren andrazko poeta bi (I). Sorne Unzueta Utarsus

■ Euzkerea argitalpena 1929.eko urtarrilaren 15ean sortu zen Bilbon Pizkundia Bazkunaren gerizapean, eta bi arotan barrena, gerratea piztu artean huts egin gabe atera egin zen salgai. Euzko Gaztediarena bereziki genuen aldizkari jeltzale honen helburuak aski argi azaltzen zaizkigu 1934.ean hasi bigarren aroko lehenabiziko alearen editorialean: «Euzkeltzale Bazkunak bixi eragin dauisan Euzkerea aldizkarijak ezin ukatu daike Arana Goiri'yar Sabiri'en bide argiz ibilli gura dauka. Geure adegifak eztauke elburu bakarrau baño; Euzkadil. Euzkerea ezta urtengo arau onetatik».

Aurtengo Sanferminetako ondarr egunean berebiziko omenaldia egin zion Labayru ikastegiak gerra aurreko Bizkaiko olerkari fin landu bati, Sorne Unzueta andreari espreski, Bilbo ondoko Abandon 1900.eko azaroaren 27an sortu zenari eta datorren hilabetearen 96 urte beteko dituenari alegia, Euskaldunberria, hamasei urte zituela ekin zion euskara ikasteari, Sabino Aranaren ideologiari jarraituz, Euskara ezizik baita maisutza ere egin zuen biak elkarri osagarri, eta segituan, sail honetan aipatu beste emakume egin antzera, Bizkaiko Aldundiak hiriguneetatik urrun bizi ziren haurrenako sortu Escuelas de Barriada izeneko auzo eskoletan —egungo ikastolen aurreko zuzena— hasi zen lanean, Errigoiti, Plentzia, Lemona eta Berangoko ikastetxeetan hain zuzen ere. Kinka bikoitz —euskara eta irakaskuntza hots— honen adierazle ezin argiagorik berak idatzirikoa dateke: «Erderia urrextindor abestija balzen txukun goxo polita dala, eta euzkerea negute gogorretan Anbotoko atxetatik eta, beko ibarretara jasten diran bela abesti garratz itxurjaren antzekua?... Ezta ardura itxurjagua baltzake be; malte txan dalgun euzkerea guere geuria da tal» Jazorkua; Euzkerea, 1930, 312). «Askotan entzun dozube abertzaletasun barik euzkerea eziala ezer. Ezitza gogorregijak itxok? Nik askotan entzun dodatz itz orek, baña geyenetan euzkeldunak ezitran abertzalien espanetatik eta biftotian ezpaya sortu txan yat (...) Azikeran umiak dagoz bilduritu, txilik, irakasita, euzkelduna txan arren, irakatsi gustiak egiten dauz erderaz. Noz edo noz, ulertzen ezpadau, egiten dauiso euzkeraz apur bat berari. Lendik ikastolara asi ziranak, nagusijak, geyen dakijanak, bata irakatsiak be, artu emon gustijak egiten dabe erderaz. Urte bai edo urte bi barru, badakije erderaz, euzkeraz dakijen beste ume euzkeldunak. Orduaroko ikasi dau trakurien ta idazien, eta ordubantxe azten da bat benetan, bere gogua zabaltzen, landuten, irakatsi barrifakaz. Ordutik aurrera ikasten dau benetan elia, ta zeti ele? Atzerritarena. Erdel itzija, Ezpañako edestija, bata ludistija be zelan. Anel bider esango dau españatarrak txan genduzan, ezpañatarrak daukoguz...» (Ikastolatan bi elez; Euzkerea, 1930, 505).

Emakume Abertzale Batzako kidea izanki, hamaika hitzaldi eman zuen ideia abertzaleak emakumeen artean sendotzeko, hala nola emakumeak gizartearen parte hartu beharra duela aldarrikatuz hainbat artikulu idatzi eta argitaratu zuen garai hartan. Izkiriatu olerkietan ere honek bere islada izan zuen, eta nazionalismoak eragin ditzakeen topiko arrazistak agertarazi zituen nonbait, hiria / baserria, herritar / kanpotar, euzkotarra / maketia bereizten zituen banaketa manikeista batik bat: «Arrotz bezterik egon da bultzija / Itz lotsakabuak, abesti zantarrak / Nai ta nai ez, entzun biar txan dodaz / Jainkuaren aurka birauaz nastautu. Bere mosu leunaz gabeko axiak / Otxiatuten dauit bekoki berua / Bultzijan diarrak zarata ta kia / Emen atsedena gentzea ta lua» (Nire errijan; Euzkerea, 1932, 53). Gerra amaitu baino lehen Parisa ihes egin behar izan zuen senarra eta lau seme-alabekin orduko Euzko Jauriaritzako ordezkarietara batera. Erbestean Parisen bertan kaleratzen zen Euzko Deya aldizkariaren ere bere lanak agertarazi zituen. 1953. urtera arte ezin izan zuten itzuli, eta ordudunak erbesteraidiko kontu autobiografiko askoren berri emanaz oraindik argitara eman ez duen gaztelarazko elaberria idatzia du. Egun 75 urterekin posta bidezko pintura-ikastaroa egiti ostean, margolanak egiten ditu, baita poesia ere, Euskarazaleak elkarrekin kaleratzen duen Zer aldizkariaren argitara eman ohi duena. Hitz lau zuten bertsoz eginak ditu bere lanak, aipatu Euzko Deya eta Euzko Gogoa aldizkarietan eta batez ere Euzkerea-n agertarazi zituen, gutiz gehien Utarsus ezizenaren azpian. ■



Iruñeko Hiria xake torneo irekiko bostgarren jardunaldiko partida, 1995eko abenduaren 31an jokatu.

Unai Garbisu (Euskal Herria), 2.395 ELOkoa — Aleksa Strikovic (Jugoslavia), 2.445 ELOkoa.

1.e4,e6; 2.d4,d5; 3.e5,c5; 4.c3,Zc6; 5.Zf3,Db6; 6.a3,Ad7; 7.b4,d4; 8.d4,Ge8; 9.Ab2,Za5; 10.bZ-d2,Zc4; 11.Zc4,c4; 12.Gc1,a5; 13.Ac4,Ab4 xa; 14.Zd2,Ad2 xa; 15.Dd2,Ze7; 16.0-0,0-0; 17.fG-e1,Ab5; 18.Aa2,Gc1; 19.Gc1,Ac6; 20.Ac3,Ga8; 21.Dg5,Dd8; 22.Dh4,Dd7; 23.Ab1,h6; 24.Dg3,Dd5; 25.f3,Db3; 26.Ad2,El8; 27.f4,Dd5; 28.Df2,Gd8; 29.Ac3,b6; 30.Aa2,Dd7; 31.Gb1,Dc7; 32.Gc1,Db7;

33.Gb1,Ae4.

Ikus koadroa. Oreka haustea zaila dirudien arren, txuriek oker nimifo batez apurtuko dute.

34.Gb5,Gc8.

Afilia heidulekurik gabe geratu da, beltzek zutabe garrantzitsua lortu duten bitartean.

35.Db2,Dc6.

Afilia erdi harrapatuta dago. 'Ae1' jokaldia ez da konponbidea (36...Ag2; 37.Dg2,Dg2 xa; 38.Eg2,Gc2 xa). Peoi bat utzi behar dute txuriek.

36.Ad2,Ag2; 37.Ae3,De4; 38.Df2,Zf5; 39.Ab1,Ze3; 40.Ae4,Gc1 xa; 41.De1,Ge1 xa; 42.Ef2,Ae4.

Amalera horretan sartzea alferrik zelaioan, txuriek amore eman zuten.



Sormen tailerrak euskaraz

Sormen gaitasuna eta euskara garatu nahi ditu Nafarroako hiriburuko Udalak antolatu duen ikastaroak

Sormen Tailerrak Euskaraz antolatu ditu berriro ere Iruñeko Udalak. Zazpigarren ekitaldia izanen da aurtengoa eta hamabi ikastarok osatzen dute. Sormen Tailerrean besteak beste, argazkigintza, pintura, txalaparta eta sukaldaritza ikasi ahal izanen dute Iruñeko biztanleek euskara erabiltzen eta bultzatzen duten bitartean.

Eduñe Elizondo / Iruñea

AZKEN URTEETAN bezala, Iruñeko Udalak Sormen Tailerrak Euskaraz antolatu ditu zazpigarren aldiz. Ekimen honen bidez, sormen gaitasuna garatu, eta aldi berean, euskara erabiltzea du helburu Nafarroako hiriburuko Udalak. Eskaintza, gainera, ez da makala. Aurtengoan, hain zuzen, hamabi ikastaro prestatu dituzte antolatzaileek, iruindar euskaldun guztien gogo eta beharrak gogobetetzeko asmoz.

Hamalau urtetik gorakoek hartu ahal izanen dute parte Iruñeko Udalen euskarazko Sormen Tailerretan. Hauek, datoren astelehenean hasi, eta 1997. urteko apirilaren 25ean bukatuko dira. Izena emateko epea, berriz, gaur bertan amaituko da, Gaztediaren Etxean. Arratsaldeko seietatik gaueko bederatzia arte izanen da zabalik. Ikastaroen prezioari dagokionez, 6.000 pezeta matrikula ordaindu beharko dute asteen saio bakarreko tailerretako partehartzaileek, eta 10.000 asteen bi saiotako tailerretakoek. Pixka bat garestiagoa izanen da Antzerki Teknikak ikasteko tailerren matrikula, 15.000 pezeta balioko baitu, hain zuzen ere.

Iruñeko Udalak aurtengo ikasturterako prestatu duen eskaintzari erreparatu gero tailer ugari izanen direla ikus daiteke: argazkigintza, pintura, modelatu artistikoa, ehungintza, masajea, txalaparta, sukaldaritza, euskal dantzak, aerobic, irratia, antzerki teknikak, eta azkenik, yoga. Ordutegiari dagokionez, gainera, arratsan izanen dira guztiak, lanean edo ikasten ari direnek ere parte har dezaten.

Euskaldunak elkartu eta euskara bultzatu • Iruñeko Udalen Sormen Tailerrak Euskaraz helburu nagusi batekin sortu ziren orain dela zazpi urte, Iruñeko euskaldunak elkartzeko, alegia. «Elkar ezagutzeko eta euskara erabili eta bultzatzeko aukera eskaini nahi genien», azpimarratu du Iñaki Azkona Iruñeko Udaleko Euskara koordinatzaileak. Xede nagusi honi lotuta, noski, tailer bakoitzeko partehartzaileak trebatzea izan da Udalen bigarren helburua.

Urtetik urtera, Iruñeko Herriko Kontseiluak plazaratu duen eskaintza sendotuz eta indartuz joan da. «Hasieran bost tailer baino ez genuen eta aurtengoa, berriz, hamabi». Argazkigintza, pintura eta ehungintza ikasta-

Aurtengo ikasturtean antzerki, irratia eta aerobic tailerrak berreskuratu ditu Iruñeko Udalak.

SORMEN TAILERRAK EUSKARAZ

KURTSOA	LEKUA	EGUNAK	HORDUA	IRAKASLEA
Argazkigintza	Gaztediaren etxea	Asteartea edo asteazkena	17.30-19.30/20.00-22.00	Maite Iriarte
Pintura	Gaztediaren etxea	Astelehena eta asteazkena	20.00-22.00	Tomas Astiz
Modelado artistikoa	Gaztediaren etxea	Astelehena eta asteazkena	20.00-22.00	Susana Muniain
Ehungintza	Gaztediaren etxea	Asteartea	20.00-22.00	Marisa Iraola
Masajea	Nabarrerria Kultur E.	Astelehena eta asteazkena	20.00-21.30	Arantxa Mitxelena
Txalaparta	Gaztediaren etxea	Astelehena edo asteazkena	20.00-22.00	Joseba Ozkoidi
Sukaldaritza	'Los de Bronce' elkarte	Asteartea	20.00-22.00	Lucia Goñi
Euskal dantzak	Hegoalde ikastola	Asteazkena	20.00-22.00	Enrique Dominguez
Aerobik	Iturruma Kultur E.	Astelehena eta asteazkena	20.00-21.30	Sara Valenzuela
Irratia	Euskalerrria irratia	Astelehena edo asteartea	17.30-19.30	Koldo Azkune
Antzerki teknikak	San Francisco ikastetxea	Astelehena	18.00-21.00	Nafarroako Antzerki Eskola
Yoga	Hegoalde ikastola	Asteartea eta osteguna	20.15-21.45	Juan Pablo Gil



Txalaparta jotzen ikasteko aukera izango dute hiriburukoek.

183 ikasle eta hamahiru talde

IRUÑEKO UDALAK ikerketa egin zuen iaz Euskarazko Sormen Tailerren inguruan, horietan parte hartzen zuten lagunen profila egin eta ezagutzeko. Iazkoan, hain zuzen, 178 lagunek hartu zuten parte Udalen ikastarotik, epea amaituta ikasturtean zehar izena eman zutenak kontuan hartu gabe (sei lagunek eman zuten izena ondoren eta batek utzi zuen). Guztira, beraz, 183 lagunek hartu zuten parte iaz, hamar ikastarotan banatuta. Argazkigintza tailerra izan zen jendetsuena, 30 ikasle izan

baitziren bertan, hiru taldetan banatuak, nahiz eta hasieran bi baino ez eskaini. Horren ondoren, 24na ikasle izan zituzten txalapartari eta euskal dantzei buruzko ikastaroek. Hemeretzi lagun izan ziren yoga ikastaroan, 18 gimnasia eta sukaldaritzan, 16 ehungintzan, 14 masaje ikastaroan eta 10 modelatu artistiko eta pinturan. Sormen tailer guztiak kontuan hartuta, hamahiru talde sortu ziren.

Emakumezkoak izan ziren gehienak, 126 zehazki, hau da, partehartzaileen % 71. Gizonez-

koak, berriz, 52 izan ziren, partaide guztien % 29.

Lana zuten partehartzaileak, halaber, langabetuak baino ugariagoak izan ziren iazko ikasturtean. 101 lagunek lana zuten (% 56,7) eta 77 langabezian ziren (% 43,3), Iruñeko Udalen lortutako datuen arabera.

Euskarari dagokionez, partehartzaile gehienak euskaldunberriak izan ziren iaz, 112 hain zuzen ere, partaide guztien % 63. Euskaldunzaharrak 64 izan ziren, % 36. % 1ek ez zuen erantzun.

Adinaren arabera zatiketa ere egin dute. Iruñeko Udaleko arduradunek, iazko matrikula epea amaituta jasotako datuen arabera. Hamalau urtetik 20ra bitarteko 33 partehartzaile izan ziren, % 18,5; 21etik 25era bitarteko 39, % 21,9; 26tik 30 urtera bitarteko 43, % 24,1; 31tik 40 urtera bitarteko 48, % 26,9; 40 urtetik gorako 13 partehartzaile, % 7,3; % 1ek, azkenik, ez zuen erantzun. Beraz, 31tik 40 urtera bitarteko partehartzaileak izan ziren gehienak iazko ikasturtean.

roak hasieratik antolatu ditu Iruñeko Udalak, baina urtetik urtera finkatu egin dira. Antzerkiari buruzkoa ere lehenengoetakoa da, nahiz eta urteotan hainbat gora-behera izan dituen. Iaz, adibidez, nahiz eta Udalen eskaintzaren barruan egon, bertan behera gelditu zen hiru lagunek baino ez zutelako izena eman. Aurten abian jarriko dela ziurtatu dute Iruñeko Udaleko arduradunek, Udalak Nafarroako Antzerki Eskolarekin duen hitzarmenari esker, hainbat ikasle eman baitu izena dagoeneko.

Aerobic eta irratia buruzko ikastaroak ere aurten berreskuratu ditu Iruñeko Udalak. Lehenengoari dagokionez, orain dela hiru urte arrakasta osoz egin zen, baina iaz bertan behera gelditu zen, irakasleak lana utzi eta ordezkorik aurkitu ez zutelako. Sara Valenzuela izanen da aurten irakasle. Ikastaro honi dagokionez, aipatzekoa da bigarren egunerako plaza guztiak beteta zirela. Irratiari dagokionez, Koldo Azkune izanen da aurtengo irakaslea. Ikastaroa Iruñerriko Euskalerrria Irratiko egoitzan izanen da, bertako kideen laguntzari esker. Sormen Tailerrek batera, beste hainbat ekintza abian jartzeko asmoak badira ere, bertan behera gelditu dira horietako batzuk. Iñaki Azkonak, Nafarroako historiari, arteari eta antzeko beste hainbat gairi buruzko ikastaroak egiteko egon zen proiektua aipatu digu. Iruñeko Udalak, baina, atzera bota zuen. X

Hamalau urtetik gorakoek hartu ahal izanen dute parte Sormen Tailerretan.

* **Carlos Claveria** ♦ Historialaria

«Nazionalismoaren historia ez da ezaguna»

Carlos Claveria jeltzale iruindarrak Navarra, cien años de nacionalismo vasco aurkeztu zuen joan den ostiralean, Iruñeko hotel batean. Bi liburukitan banatua, 1.224 orrialdeko lana egin du azken urteotan. Nafarroan euskal nazionalismoaren historiaren inguruan zegoen hutsunea bete nahi izan du Claveriak orrialdeon bitartez. Eta horretaz mintzatu da gurekin ere.

Eduñe Elizondo / Iruñea

LAU URTE eman ditu Carlos Claveriak bere bi liburukak idazteko. Eta beste bat idazteko adina material eta datu bildu du bitartean, erran digunez. Artxiiboak eta hemerrotekak izan ditu bere lanean lagun.

■ **Nola sortu zen Navarra, cien años de nacionalismo vasco liburua idazteko ideia?**

Behar bati erantzuteko batez ere, nire eta beste askoren beharra, ez baitzegoen ezer Nafarroako euskal nazionalismoari buruz. Falangeak gure etxe guztiak eta gure egunkaria suntsitu zituenean, den-dena galdtu zen, artxiiboak, agiriak, aktak, ez zitzaigun deus ere gelditu. Zerbait jakin nahi izanez gero, batengana edo besterengana jo behar genuen, zer edo zer gogoratzen zutenak, garai hartakoak ezagutu zituztenak.

■ **Ez da berdin gertatu Bizkaia eta Gipuzkoan.**

Ez, Bizkaiko eta Gipuzkoako nazionalismoari buruz liburu asko idatzi dira, baina bazirudien Nafarroan existitu ere ez zela egin. Eta oso garrantzitsua izan zen. Datuek halaxe adierazten dute: 4.500 afiliatu zituen alderdi bat zen, 2.000 emakume, 1.500 m² ligoizale, bi milatik gora sol¹ is sindikatuan, eta bere eg² karia ere bazuen, La Voz de

Navarra. Nik jakin nahi nuen, eta nik bezala beste askok ere. Horregatik idatzi dut liburua, zegoen hutsunea betetzeko.

■ **Zaila izan al da datuak aurkitzea? Non bilatu dituzu?**


Egia erran, nik uste baino datu gehiago aurkitu ditut. Ez nuen uste hasieran bi liburuki idazteko adina material aurkituko nuenik, eta oraindik beste bat idazteko behar adina datu daukat bilduta. Artxiiboetan bilatu dut. Nafarroa eta Iruñeko artxiiboetan batez ere, eta baita hemerrotekan, aktak eta bestelako agiriak, erran bezala, Falangeak suntsitu baitzituen.

■ **Urtez urteko historia jaso duzu, 1895. urtetik gaur egunera arte. Baina Nafarroan nazionalismoaren inguruan bildu ziren hainbat pertsona ospetsuri ere eskaini diezu tarte bat.**

Bai, horietako asko ezezagunak baitira gaur egun. Batzuk alpa-tzearren, adibidez, hor ditugu Estanislao Aranzadi, Santiago Cunchillos, Jose Agerre, Julio Ruiz de Olaga eta abar. Azken hau, adibidez, oso gazte hasi zen alderdiaren ekintzetan parte hartzen. Amatur aldizkariako zuzendari izan zen, eta La Voz de Navarra-n ere hartu zuen parte. Izen hauek guztiak erabat ahaztuta zeuden, badirudi Nafarroan ez dela nazionalistatik izan. Horregatik aipatu nahi izan ditut.

■ **Nafarroan nolakoak izan ziren euskal nazionalismoaren has-tapenak?**

Eusko Alderdi Jeltzalea 1895. urtean sortu zela erraten ohi da. Alderdia berez bai, baina horren aitzindariak ere bilatu behar dira. Nafarroan aitzindari garrantzitsuak dauzkagu, hain zuzen, Nafarroako Euskara Elkarteak sortu zutenak. Iturralderen etxean hamahiru lagun elkartu ziren, tartean Kanpion, Landa, Oloriz eta abar. Elkarrekin, hasieran, kultura eta historiaren alorrak lantzen zituen. Denborarekin, 400 lagun bildu ziren bertan, eta, garaiko beharrak bultzatuta, po-



Nafarroako euskal nazionalismoari buruz liburua idatzi du Carlos Claveriak. JOXE LACALLE

litikaren bideari ekin zioten. Alderdia Bizkalan 1895. urtean sortzen da. Sabino Aranak Nafarroan ikusi zuen Gamazadaren ondorioz. Alderdiaren sorreraz, bizkaitarrek sortu zutela dirudi, baina ez, Sabino Aranarekin batera lau nafar egon ziren. Olatzun tartean, Sabino Arana Iruñean ezagutu zuena, Gamazada zela-eta La Perla hotelean egin zen afarian. Alderdiaren lehen urratsak Nafarroan 1909. urtean eman ziren eta 1910ean lehen batzokia sortu zen.

■ **Eusko Alderdi Jeltzalearen his-**

toria zergatik da hain ezezaguna Nafarroan, zure ustez?

Nire ustez, beldurra izan da arrazoi nagusia. Gerra ondoren, mundu guztia beldur zen. Hemen gelditu zirenek jazarpen ikaragarria pairatu behar izan zuten eta ezin zuten deus egin, nazionalismoko kide garrantzitsuak izan ondoren. Manuel Aranzadi, adibidez, bi aldiz diputatua izandakoa, hartu, txapel gorria jarri eta erreketez jantzita ibilarazi zuten Iruñeko kaleetan barrena. Beste hainbat kartzelan zegoen. Egoera horrek berean jarratu zuen gure

s o s l a i a

Iruñeko Curia kalean jato zen Carlos Claveria 'Navarra, cien años de nacionalismo vasco' liburua egilea. 1936. urteko gerra piztu zenean hamalaka urteko mutikoa besterik ez zen. Eusko Alderdi Jeltzaleko kide, berriz, hamalau urte zituenetik bada.

Alderdiaren barriari, hain zuzen, hainbat kargu bete ditu Carlos Claveriak. Nafar Buru Batzarreko lehendakari bitan izan da, baita Euzkadi Buru Batzarreko kide ere. Halaber, Iruñeko Herri Adiskideen Elkarte bultzaleetako bat eta lehendabiziko lehendakaria izan zen Claveria.

Nazionalismoaren inguruan liburu asko idatzi izan ditu Carlos Claveriak. Izan ere, historia da iruindar honen zaletasunik gogokoena, haur bat besterik ez nintzenean ere, historian lortzen rittuen notarik onenak.

belaualdia allegatu zen arte, gerra egin zutenen ondorengoa. Elkartzen hasi ginen, eta idazten.

■ **1995. urtera arte allegatzen da nazionalismoari buruz egin duzun lana. Egun, zein da EAJk Nafarroan betetzen duen egin-kizuna?**

Parlamentuan ordezkaritzarik ez daukagunez, prentsaren bidez baino ezin dugu gure hitza aditzera eman. Egun batean dagokigun posizioa berreskuratzea espero dut, baita egun bizi dugun zatiketa bukatzea ere, programa eta ideia berak baitaizkagu.

LUCRÁNDO

ZALDI EROA

LIRIKAZ HONATAGO 32 GAUR:

Jose Felix Azkond

Eguzkiaren sutegian

Helio da errege

Hidrogeno erregai